



PP

Talde Politikoa Grupo Político
PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Basozabalgo bidearen gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du.

JUSTIFIKAZIOA

Basozabalgo bidean auto, moto, oinezko eta bizikletazale asko ibiltzen da asteburuetan; Hernanitik, Martutenetik, Miramondik edota Oriamendi pasealekutik gertu diren ingurune naturalez gozatzen.

Bihurgune ugari duen bidea da, ordea, eta gaizki daude bidea eta bide bazterrak ere; eta, horrela, oso arriskutsua gertatzen da.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio asfaltatzeko bidea berehala, eta kentzeko han diren zulo guztiak.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio bide bazterrak egokitu eta ibilgailuak eta oinezkoak seguru ibiltzeko modua bermatzeko.
3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio seinale batzuk jartzeko, oinezkoak eta kotxezaleak konturatzeko zer arrisku dagoen han.
4. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio oinezkoentzako ibilbide bat diseinatzeko errepidearen paraleloan, oinezkoen segurtasun osoa bermatzeko.

Donostian, 2025eko urriaren 10ean

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea